

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Foru erakundeek Nafarroako Errege eta Erreginak omendu dituzte Leiren

Barkos Lehendakaria izan da ekitaldi tradizional honen burua, zibila eta publikoari irekia dena; amaitzeko, Luzaideko Bolanteen saioa izan da

Igandea, 2017.eko ekainak 25

Foru erakundeek Nafarroako Errege eta Erreginak omendu dituzte gaur, igandea, duela lau hamarkada urtero egiten duten moduan. [Ekitaldia](#) Leireko San Salvador Monasterioko elizan izan da, lehen erregeen gorpuzkiak gordetzen dituen mausoleoaren aurrean.

Ekitaldia zibila da eta publikoari irekita dago. Segizio ofiziala elizara heldu direnean hasi da. Honako hauek osatu dute: eskaintzak zeramatzaten giltzariek, mazolariak eta arma-erregeak, eta agintariak: Nafarroako Lehendakaria, Uxue Barkos; Parlamentuko lehendakaria, Ainhoa Aznarez, eta Gobernuako kontseilariak.

Monasterioko abade mitradun Juan Manuel Apesteguiak agintariak agurtu ditu eta errege-panteoiaren zeuden tokietan eseri dira, Iruñeko erresumako lehen errege-erreginen gorpuzkiak dauden tokian. Iruñeko erresuma Nafarroako erresumako aitzindaria izan zen, eta erregeen artean hauek daude: Eneko Aritza (Iruñeko lehen erregea, IX. mendea), Gartzia I.a Eneko (IX. mendea), Fortun Gartzia I.a (Iñigotarren dinastiako azken erregea, IX. mendea), Antso I.a Gartzez (X. mendea), Gartzia I.a Nafarroakoa (X. mendea) eta Antso II.a Gartzez Abarka (X. mendea).



Manu Ayerdi, Uxue Barkos eta Ainhoa Aznárez, mausoleoaren aurrean.

Ondoren [testu bat irakurri du](#) Eloísa Ramírez Vaquero historialariak, gaztelaniaz eta euskaraz, Leirek Nafarroako historian duen eginkizuna laburtzen duena. Hain zuzen, erresumako hastapenen memoriarekin lotuta geratuko dela eta Aritza dinastiaren gune espiritual eta intelektual

gisa finkatuko dela esan du. "Leire, errege-familiaren jatorrizko gune izango da beti, eta erresuma beraren erreferente

historikoa", gaineratu du historialariak. Testuan ere esaten da 1973. urtetik Nafarroako erakundeek antzinako erresumako errege-erreginei egiten dieten omenaldia Leiren egiten dela, "hamabi mende baino gehiagotan bizirik egon den giza eta lurralde multzo bat eraiki zutenak goraiatzeko, Nafarroaren oraina eta etorkizuna bultzatzen duen ondarea delako".

Ondoren, Barkos Lehendakariak eskaintza egin du: panteoiaren hesiaren aurrean lore gorritz osatutako koro bat utzi du, legenda honekin: "Navarra a sus reyes y reinas. Nafarroak, bere errege-erreginei". Bestalde, Parlamentuko lehendakariak Iura Vasconiae bildumako 'Nafarroako Zuzenbide Zibilaren kodifikazioruntz Sinposiumaren' txostenak jasotzen dituen liburua eskaini dio monasterioari. Azkenik, Gobernuako lehen lehendakariordeak, Manu Ayerdik, zilarrezko kutxatila eman du, foru gobernuaren dohaintzarekin, monjeei mausoleoa zaintzeagatik eskertzeko.

Behin ekitaldia amaituta ostatura joan dira eta han dantza-ikuskizun bat egon da Luzaideko Bolanteekin. Horrela, Martxa, Bolant Dantza eta Lauetan Erdizka dantzak eta Jauziak direlakoak egin dituzte.

Musika-emanaldiak eta ospakizun erlijiosoak

Tenpluaren sarreran nahiz irteeran Nafarroako ereserkia (Erresumako Sarrera Martxa) jo dute, Jose Luis Echechipiak organoa jo duela. Nafarroako Gobernuaren Tronpeta eta Atabalen Bandak martxa ere jo du monasterioko esparrutik egindako ibilbidean. Ospakizunaren musikari dagokionez honako hauek aritu dira: Zangozako Nora Abesbatza, Bruno Jimenezek zuzenduta, Kentaro Satoren Requiem pacis, 5. zk. "In paradisum" abestu duena; Agur Jaunak abestia, Pascual Aldaveren harmonizazioan; eta Nafarroako ereserkia, gaztelaniaz eta euskaraz abestu dutena. Horrez gain, Monasterioko monjeen abesbatzak ere abestu du, XII. mendekoa den "Lux Aeterna" kantu gregorianoz egindako konposizioa, eta Jose Luis Echechipia organistak Sidney Campbellen "Fugal Epilogue" jo du.

Ekitaldira hainbat pertsona bertaratu dira. Ospakizun ofizialaren aurretik Nafarroako errege-erreginen omenezko meza egin da, Leireko Abadiak antolatuta.

1973. urtetik

1973. urtean Nafarroako erakundeetako ordezkariak urtero Leireko San Salvador monasterioa joateko oihura ezarri zen, Nafarroako antzinako Erresumako errege-erreginen omenezko hileta-meza batera joan zitezela. Horrela, Iruñeko Erresumako lehen erregeen mausoleoaren aurrean lore-koro bat jarri behar zuten, eta monasterioari dohaintza bat eman beneditarrei, benetako gorpuzkiak zaintzeagatik eskerrak emateko. Festa hau herritarrek parte hartzeko sortu zuen, izan ere, erakundeetako ordezkariak gain, ehunka pertsona ere joaten zirelako.

Foru Aldundiak Nafarroako Eguna ospatu behar zela erabaki zuen 1982. urtean, ospakizun horrekin lotuz. Horrela, hurrengo bi urteetan ospatu zuen, 1985. urtean Nafarroako Eguna, foru legez, abenduaren 3an ezarri zuten arte, San Frantzisko Xabierren heriotzaren urteurrena eta jaieguna zelako.

1990. urtean, Nafarroako autogobernuaren kultura-organoa den Viana Printzea Erakundearen 50



Agintariak Speciosa atean.

urteurrena dela eta, Kulturaren Viana Printzearen Saria sortu zuten, Nafarroako Kultura Kontseiluak proposatuta Gobernuak urtero ematen duena, eta Leireko San Salvador Monasterioan entregatzea erabaki zuten, Nafarroako errege-erreginen omenaldiaren egun berean. 1993. eta 2015. urteen artean Asturias eta Vianako Printzeak entregatu du saria, eta Erregeen Omenaldiaren buru izan da.

2016. urtean Nafarroako Gobernuak ekitaldi honen izaera zibila berreskuratu eta publikoari berriro irekitzea lortu zuen.

Galería de fotos



Segizioa Monasterioko elizarantz joaten.



Ayerdi lehendakariak foru Gobernuaren eskaintza egiten du.



Panteoia, egindako hiru eskaintzekin: kutxatila, lore-koroa eta liburua.



Luzaideko Bolanteak dantzatzen omenaldia amaitzean.



Bolanteen saioa.